**Fitxa teknikoa / Ficha técnica**

Izenburua / Título: **Horma**
Egilea / Autor: **Anjel Lertxundi**
Saila / Colección: Narratiba, 106
ISBN / EAN: 978-84-9109-246-9
Salneurria / Precio: 18 €
Orri kopurua / N° páginas: 240
Formatua / Formato: 15 x 22 cm

**Lana / La obra**

Itzultzailea da nobela honetako narratzailea. Kode batetik beste batera hitzak pasatzen espezialista. Bizitzan ere halatsu, kode batetik bestera pasatu beharra du mundua ulertuko badu. Maite du bere lana, baina hor sortzen zaio arazoa. Hautzarroan gertatu ziren pasarte lauso batzuk nahasten zaizkio buruan, Martarekin bikote harremnari ekin behar dion une berean, noiz eta amari, kode haiek erraz itzuliko zituen pertsona bakarrari, memoria husten eta hondatzen zaion garaian.


Semea amari mintzo zaio, jakinagatik ere amak ezin diola erantzun:

«Zergatik haserretzen zen aita zurekin, zer zegoen zuen konpon ezinaren atzean?, eta ez nuke bide horretatik segitu nahi, baina nik ez nuen zuen kodea ondo ulertzen eta galduta nengoen. Ulertu egin behar nuen ikusten nuena, itzuli egin behar nuen nire ume-kodearen arabera».

«Ni eta nire doblea, ni eta Fidel ari gara narratzailearen ahotik: ahots bat bitan banatua modu aleatorioan, kontakizunari bizitasuna ematea beste helbururik gabe. Bada, talaia bakar bat aski ez eta bi hautatu nituen kontakizun honi ekiteko orduan: ahots baten ordeztu bi, nire buruaren defentsan».

«Bada, ordea, horrek baino gehiago kezkatzen nauen zerbait: [...] nire bizitzan halako garrantzia duten pertsonak ezin didate didazue? erantzun. Aitak, hil zelako; Martak, ez duelako ezer jakin nahi nirekin; zuk, ama, adimena gero eta gehiago ari zaizulako laburtzen. Hirutatik bakar batek ere ez didazue esango: Errespetu pixka bat!

»Beste gauza askoren artean, beldurra ere ematen du idazteak».

Egilearen liburuak bilduma honetan / Libros del autor en esta colección:

Orr: 280 / 19 €



Orr: 256 / 19 €

